

Euskara hizkuntza ertaina da munduan

- Euskara hiztun gehien dituzten munduko %10 hizkuntzen artean dago. Bada, horrelako baieztapenen berri ematea tokatu zaie Lanbide Heziketako Buruntzaldeko 6 ikastetxetan motibazio saioak ematen aritu diren hizkuntza aholkulariei. Helburuen artean, errotuta dauden beste uste batzuk ere hankaz gora jartzea bazuten aholkulariok. Ia 200 ikaslek ikusi dute adibidez, hizkuntza bakarra jakinda ez ginatekeela hobeto moldatuko, hizkuntza batzuek ez dutela zertan beste batzuk baino garrantzitsuagoak izan, hizkuntza komunitateak direla eskubideak dituztenak eta 6.000 hizkuntza inguru daudela munduan; ondorioz, eskolan irakatsi ziguten bezala estatu bati ez dagokiola hizkuntza bakarra (Papuan esaterako 650 hizkuntza inguru daude). Hori guztia aitzakia, lan munduan hizkuntzen kudeaketak duen garrantziaz jabetzea izan dute helburu nagusi hitzaldiok, laster inguruko enpresetan lan-praktikak egingo dituzten ikasleak motibatu aldera.
- Ondorioak: hitzaldiaren ostean betetako galdetegiaren erantzunei erreparatu eginez, ikasleen %85ak uste du hizkuntza kudeaketa baliagarria zaiola enpresari, eta beste hainbatek uste du ere enpresetako arduradunek euskara jakin beharko luketela (lekuan lekuko hizkuntza).
- Albisteak ikusi nahi baduzu sakatu [hemen](#)



Aukera ezazu: DBH euskaraz!

- Buruntzaldeko udalek Bigarren Hezkuntzako **ikasketak euskaraz** egiteko gomendio egin dute “aukera ezazu” egitasmoaren bitartez. Horrela, hobeto prestatuak egongo dira etorkizun profesionalerako, eta herri honetako bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko gai izango dira.
- Gero eta beharrezkoagoa da bi hizkuntzak ongi jakitea, bai administrazioan lan egiteko (udaletan, Aldundian, Jaurilaritzan, EITBn ...), bai enpresa-munduan aritzeko ere.
- Zer ikasi aukeratu ezinean bazabiltza eta euskaraz egin nahi baduzu, eskaintza zabala duzu eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe hauetako batean: Andoainen La Salle-Berrozpe, Zine eta bideo eskola, Leitxaran BHI edota Aita Larramendi ikastolan, Hernaniko BHI-n, Urnietako Salesiarretan eta Usurbilgo BHI-n.
- Gero eta enpresa gehiago ari dira beren eguneroko jardunean euskararen erabilera normalizatzen, bai bezeroei zerbitzu hobea emateko, bai enpresa barruko langileen arteko harremanetan ohiko hizkuntza bihurtzeko ere. Honen adibide Andoaingo Digitalak enpresak, Lanbide Heziketako ikasleak honetaz jabetu eta motibatu daitezten prestatutako bideoa.
- Bideoa eta informazio gehiago [hemen](#)



Buceador: ikus-entzunezko edukia itzultzeko sistema ia pronto

- Irrati, telebista eta testu igorpenak euskara, katalana, gailegoa, gaztelania edota ingelesera automatikoki itzuliko dituen lehen aplikazio informatikoa prest izango da uztail honetatik bertatik aurrera. “Buceador” izena ipini diote proiektuari eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko talde batek sortu du.
- Proiektuaren helburua, mintzamina, itzulpena eta ahots sintesiaren aitortza automatikoa gerta dadin teknologia eta sistemetan hobera egitea da.
- Berria ikusteko sakatu [hemen](#)

IKT: baita euskaraz ere

- Microsoft-ek eta Eusko Jaurlaritzak euskarazko IKT-en erabilera sustatu nahi dute Microsoft-en puntako erreminten bidez. Besteak beste hauek doan deskargatu daitezkeen produktuak: Microsoft Office 2010, Microsoft SharePoint 2010, Microsoft Dynamics CRM 2011 eta CRM Online.
- Produktuak nola deskargatu? Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdiain eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

www.buruntzaldea.org

www.aek.org